

## OHIKO OSOKO BILKURA 12/12

### UDALAK 2012ko AZAROAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### **BATZORDEKIDEAK:**

##### **ALKATEA:**

Luis Intxauspe Arozamena jn.

##### **ALKATEORDEAK:**

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

##### **ZINEGOTZIAK:**

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

M<sup>a</sup> Jesus Egido Moreno and.

Jose Antonio Sánchez Almaraz jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Juan Antonio Cuesta Solé jn.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2012ko azaroaren 30ean ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

##### **IDAZKARIA:**

Arantxa Urain Mendiburu and.

**1.- AKTAK ONARTZEA: 2012-10-16 ETA 2012-10-30.** - 2012ko urriaren 16an eta 2012ko urriaren 30ean egindako bileren aktak onartu dira.

2012ko urriaren 16an egindako bileraren akta onartu da (EAJ/PNV, Euskal Sozialistak eta H1! alderdiak abstenitu egin dira).

Talde horiek argitu dute 2012ko urriaren 16ko bileran egon ez zirelako abstenitu direla.

**2.- 2012KO URRIAREN 24ETIK 2012KO AZAROAREN 22RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.** – 2012ko urriaren 24tik 2012ko azaroaren 22ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da:

\* Alkate jn.

\* Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.

- \* Kiroletako delegatu jn.
- \* Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- \* Politika Sozialeko delegatu jn.

**3.- KOMUNIKAZIO ARDURADUNAREN IZENDAPENARI BURUZKO DEKRETUAREN BERRI EMATEA. -**  
Udalbatza alkateak emandako honako dekretu honen jakinarene gainean dago:

**DEKRETUA:** Hernanin, bi mila eta hamabiko azaroaren hemeretziari.

Osoko Bilkurak 2012ko otsailaren 28an erabaki zuen behin behingo langileentzat komunikazio arduradun lanpostu bat eratzea udaleko plantillan eta lanpostuen zerrendan.

Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 104 artikulua eta indarrean dagoen Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezarritakoa kontuan hartuta.

Ikusita Pertsonaleko AOTk luzatutako txostena.

Eman zaizkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

**ERABAKI DUT:**

- 1.- Aritz Aira Urruzola andrea udal honetako behin-behingo langilea izendatzea, 2012ko azaroaren 19tik aurrerako ondorioekin, baldintza hauetan:
  - \* Lanpostua: Komunikazio Arduraduna
  - \* Lansaria: Taldea C1- maila: Udaleko Lan Hitzarmeneko 11a.
  - \* Lanaldia: Erdia.
- 2.- Aipatutako langileak eginkizun horiek utzi beharko ditu Alkatetza honek ebazpen bidez hala erabakitzen duenean eta, nolana ere, nire kargua uzten dudanean edo agintaldia bukatzen denean.
- 3.- Erabaki honen laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta interesatuari honen berri ematea.
- 4.- Hurrengo Osoko Bilkuran ebazpen honen berri ematea.

Jakinaren gainean egoteko eta, sinatu ondoren, ebazpenean adierazten den datatik aurrera, izendatzen den karguaren jabetze ondorioak izateko adierazten dizut.

**4.- 2012KO IRAILAREN 25EKO OSOKO BILKURAKO 7. PUNTUA ZUZENTZEA: "UDAL ONDASUN INBENTARIOAREN ZUZENKETA 2011KO ABENDUAREN 31KO ONDORIOEKIN (2007-2011)". -Udalbatzak 2012ko irailaren 25ean egindako osoko bilkuran onartu zuen Udal Ondasunen Inbentarioa zuzentzea, 2011ko abenduaren 31ko ondorioekin.**

Lehen atalean jasotzen den laburpen-taulan, non inbentarioaren kopuru osoa osatzen duten kapituluak xehakaturik agertzen baitira, hainbat akats ikusi dira. Hortaz, aho batez erabaki da haiek zuzentzea eta, 2012ko irailaren 12ko erabakian agertzen den laburpen-taularen ordez beste hau jartzea:

Higiezinak eta azpiegiturak	92.911.589,93 €
Eskubide errealak	2.810.284,90 €
Higigarri historiko-artistikoak	19.490,06 €
Balore higigarriak	1.762.032,29 €
Ibilgailuak	489.177,93 €
Azienda	- €
Altzari eta tresnak	3.999.391,87 €
Ondasun eta eskubide lehengoragarriak	- €
Guztira	<b>101.991.966,98 €</b>

**5.- ERABAKI HAU ZABALTZEA: "TAXI ZERBITZUAREN TARIFAK: 2013. URTERAKO PROPOSAMENA".** – Udalbatzak 2012ko urriaren 30ean egindako osoko bilkuran honako erabaki hau hartu zuen:

"1.- Hernaniko auto-taxi zerbitzuari dagozkion hiri-tarifa hauek onartzea eta %1,9ko igoera aplikatzea.

\* 1 Tarifa, egunekoa:

- Abiasaria: 5,0098 €
- Egindako kilometro bakoitzeko: 1,0651 €.
- Itxaron ordu bakoitzeko: 20,4384 e

\* 2 Tarifa, gauekoa:

- Abiasaria: 5,9714 €
- Egindako kilometro bakoitzeko: 1,7061 €
- Itxaron ordu bakoitzeko: 32,1208 e

2.- Euskadiko Prezioen Batzordeari erabaki hau jakinaraztea."

Erabaki hori zabaldu beharra dagoela jotzen denez, honako puntu hauek onartu dira aho batez:

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

**1 Tarifa:** lanegunetan 07:00etatik 22:00etara.

**2 Tarifa:** egunero 22:00etatik 7:00etara. Tarifa hau aplikatuko da, halaber, 7:00etatik 22:00etara igandeetan, araudi autonomiko eta lokalean erabakitako jai egunetan, larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n.

**6.- KALE GARBIKETARAKO FCC ENPRESAREKIN SINATUTAKO KONTRATUAREN ALDAKETA.** - Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza Saileko batzordeak 2012ko azaroaren 21ean emandako irizpena.

Alkate jaunak bozketa egin du. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 8 (Bildu).
- Kontrako botoak: bat ere ez.
- Abstentzioak: 6 (3 Euskal Sozialistak, 2 EAJ/PNV, 1 H1!)

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

1.- 2010eko maiatzaren 7an Hernaniko Udala eta FOMENTOS CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS, S.A. enpresaren artean sinatutako Hernaniko Udalerriko kale garbiketa zerbitzuaren kontratuaren aldaketa onartzea, FOMENTOS CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS, S.A. enpresak 2012ko azaroaren 14an eginiko proposamenarekin bat etorritz, Kontratu aldaketa honek urtean 7'42% eko murrizketa suposatzen du. Hilabeteko kanona 78.640'44 euro (+ BEZ)etik, 72.805'32 € (+ BEZ) era jeitsiz.

Ondorioz, kontratuaren prezioa honakoa izango da: 873.663,84 €/urteko (+ BEZ).

Honako kontratu aldaketak 2012ko abenduaren 1etik izango ditu ondorioak.

2.- Enpresak konpentsazio modura egiten duen eskaera (egoerak baimenduko balu FCC-ri kontratuaren hasierako baldintzak behartzea baimenduko liokeen kontratuaren luzapena orain erabakitzea) ezestea, oraindik kontratu amaierarako denbora asko gelditzen delako, bitarte horretan egoera ekonomikoa oso aldakorra izanik.

3.- FOMENTOS CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS, S.A. enpresak 2012ko azaroaren 14an estolderia garbitzeko lanetarako egindako proposamena onartzea:

- Estolderia sarearen garbiketarako: 50 lanaldi/urtean.
- Telebistarekin egiten den ikuskaritzarako: 10 lanaldi/urtean. Bi motatako lanaldiak aldagarri izanik.

4.- Alkatea edo bere ordekoa dagokion kontratu administratiboa sinatzeko habilitatzea.

Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) esan du murrizketa honekin kezkatuta daudela. Ados daude udalak gastuak gutxitzeko ahalegina egin behar izatearekin, baina ez gai honetan.

Gogorarazi du atez atekoa martxan jarri eta zakarrontzien sistema aldatu zenez geroztik zabor gehiago dagoela eta kaleak, oro har, zikinagoak daudela eta, horregatik eman dutela kontrako botoa, zerbitzuaren murrizketa bakarrik jai egunetarako izan arren.

Alkateak (Bildu) esan du zerbitzuan hainbat doikuntza egingo direla, baina horrek ez duela zerbitzuaren eraginkortasunean eraginik izango.

**7.- ETXE-KALERATZEEI BURUZKO MOZIOA.** - Amenabar jaunak talde politiko guztietako bozeramaileen artean adostutako mozio hau **irakurri du:**

#### **ETXE-KALERATZEEI BURUZKO MOZIOA**

Bizi dugun krisi sakon honek ondorio zuzenak dauzka langabetu kopuruan eta egoera horren ondorioz euskal herritar eta familien errentak jaisten ari dira. Ez dirudi, gainera, gauzak datozen hilabeteetan hobera egingo dutenik.

Diru sarrerak gutxitzeak ekarri du herritar asko eta asko beren hipotekei aurre egin ezinik geratzea. Horrek etxe-kaleratzeak ugaritu egin ditu eta marjinazio eta gizarte-bazterketa arriskua ere bai. Gainera, indarrean dagoen lege sistemaren arabera, zorduna ez da zorraz libratzen ezta etxea entregatuta ere. Etxea galdu ondoren ere zordunak eutsi egiten dio oraindik ordaindu gabe daukan zor zatiari.

Bestalde, finantza entitateak, beren arazoak konpontze aldera laguntza publikoak jasotzeko oso prest agertu ohi direnak, orain dela oso denbora gutxi arte uko egin diote milaka familia kalean ez gelditzeko irtenbideak bilatzeari edo negoziatzeari.

Egoera une honetan hain da larria, ezin da gehiago itxaron. Jakin badakigu udalak ezer gutxi egin dezakeela, beste erakunde batzuk baitira kontu honen gainean neurriak hartu behar dituzten lehenak. Baina, hala izanda ere, ez gara geldirik geratuko.

Hernaniko Udalak ezin onar dezake finantza entitateak udal funtsei etekina ateratzea, zor operazioen epe ertain eta luzeko gordailuei, eta, aldi berean, hernaniarrak beren etxeetatik kaleratzea. Ez dauka logikarik hernaniarrei laguntza ukatzen dieten bitartean banku eta kutxek hernaniarrek sortzen dituzten funtsei etekina ateratzen ibiltzea.

- 1.- Hernaniko Udalak salatzen du Estatu espainiarrean oraindik ere hipoteka maileguak ez ordaintzearen ondoriozko exekuzio prozesuen erregulazio indarrean jarraitzea, erregulazio guztiz bidegabea eta pertsona eta familia askorentzat krisi ekonomikoaren ondorioak are eta larriagoak egiten ari dena, marginalitatera eta gizarte bazterketara bideratzeraino.
- 2.- Hernaniko Udalak eskumena duten era-kundeei eskatzen die berehala bultzatzea dezatele lege aldaketa, bidezkoagoa eta sozialago izan dadin.
  - Konkurtso legea
  - Hipoteka legea
  - Prozedura zibilaren legea
  - eta gaiarekin lotutako gainerako araudi guztia

Pertsonak eta familiak abusuzko klausulen ondoriozko babesgabetasun egoeren aurrean babesteko helburuarekin, zorrak dituzten pertsonak, fede onez, ez iruzur egin nahian, beren bizitza-proiektuari duintasunez aurre egiteko modua izan dezaten. Eta, azken kasuan ordainean ematea borondatez onartzeko aukera kontuan hartuta.

- 3.- Hernaniko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berrazter dezala berehala Hipoteken Bitartekotza Zerbitzua, aholkularitzari eta bitartekotza prebentiboari buruzko gaiak lantzeko, besteak beste, eta zerbitzu horrek egiten dituen proposamenak finantza entitateentzat lotesleak izan daitezkeen. Zerbitzu honen baitan ordaintzeki aurre egiterik ez daukaten kaleratutakoak hartuko dira, alokairu sozialeko erregimenean bizitzen jarraitzeko aukera izan dezaten
- 4.- Hernaniko Udalak finantza entitateei eskatzen die ohiko etxebizitzarekin lotuta dauden exekuzio hipotekario guztiak geldiaraz ditzala justuagoa den lege-aldaketa egiten den arte eta, kasu bakoitzean banan-banan azter dezala, fede txarrez ez baizik eta familiek bizi duten krisi ekonomikoaren eta egoera prekarioaren ondoriozkoak diren ez ordaintzei irtenbideak bilatzeko.

- 5.- Hernaniko Udalak hernaniar guztiei dei egiten die udal errezibo guztiak aurreko puntuan eskatutakoa onartzen duten entitateetan helbidera ditzaten.
- 6.- Hernaniko Udalaren zerbitzu juridikoek azter dezatela zer nolako tarte legala dagoen etxe-kaleratzeren bat gauzaten duten finantza entitateak udalarekiko harremanetatik baztertzeko eta etxe-kaleratzeren bat eginez gero funtsak finantza entitate horretatik berehala ateratzeko.
- 7.- Hernaniko Udalak finantza entitate guztiei eskatzen die finantza sektorean erantzukizun-prozesu bati ekin diezaiotela etxe-kaleratzeak saihesteko.
- 8.- Hernaniko Udalak erakundeei eskatzen die ezen, gizarte arloan arreta eta babes berezia behar dutenen taldean sar ditzala beren etxeetatik kaleratutako pertsonak eta behar diren gizarteratze programak martxan jar daitezela eraginda dauden familiek gizarte bazterketa jasan ez dezaten. Etxetik kaleratutako familiek bizileku duina izan dezaten bestelako alternatibak bilatuko ditu, bere eskumenen baitan eta familia horiekin elkarlanean.
- 9.- Hernaniko Udalak akordio hau Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernuari eta finantza entitate guztietako zuzendariei jakinaraziko die idatziz, hartu ditugun erabakiak kontuan har ditzaten.

Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) hau esan du:

Pozten gara talde politiko guztien artean mozio bat prestatzea lortu dugulako.

Badakigu, jakin, udal batek gai honi dagokionez ezer gutxi egin dezakeela. Baina, hainbat urtez estatuko gobernuaren ardura izan duen alderdi baten ordezkari naizen aldetik, gizarteari barkamena eskatu nahi nioke, sufrimendu handia ekarri duen lege bidegabea aldatu ez dugulako; horretan akatsa egin genuela aitortzeko behar pertsonala daukat. Zoritxarrez berandu iritsi gara, eta kaltea dagoeneko konponezin bihurtu da batzuentzat.

**8.- AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EMAKUMEEN INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.** - Goenaga jaunak talde politiko guztietako bozeramaileen artean adostutako mozio hau irakurri du:

#### **AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EMAKUMEEN INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Beste urte batez, Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, Hernaniko Udalak biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, gure Udalerrian ere irauten duen gaitza baita.

2012a hasi zenetik 5 emakume erail dituzte Euskal Herrian eta milaka dira komunikabideen bitartez jasotzen ditugun kasuen berri. Eraso sexisten inguruko gertakariak eta salaketak egunero entzun ohi ditugun elementuak dira. Herriko jaietan edota jai eremuetan emakumeon askatasuna baldintzatu eta eraso sexisten areagotzea ematen da. Lan eremuan ematen diren sexu jazarpenen datuak kezkatzeak dira baita gazteriarren artean sexuen arteko botere harremanak eta balore patriarkalak iraunarazteaz gain, mutil askoren nesken kontrako indarkeria ere.

Emakumeen aurkako biolentziak, izaera fisikoa, sexuala edo psikologikotik haratago, ekonomiko eta sozial izaera ere ba du. Horregatik Udal gisa emakumeen aurkako biolentziaren aurrean dugun jarrera, bikote edo bikote ohi eremuan ematen den biolentziatik haratagokoa izango da.

2012 urte honetan, gainera, bizi dugun egoeraren eta eskubideen urraketaren aurrean ezin dugu beste alde batera begiratu eta, horregatik:

- Bikote edo bikote ohi eremuan ematen diren etengabeko tratu txar fisiko eta psikologiko adierazpenak SALATZEN DITUGU. Emakume izate hutsagatik kolpe, paliza eta heriotzak gertatzea onartezina iruditzen zaigu.
- Hainbat ordezkari politiko, agente sozial, judizial eta komunikabideren aldetik egindako adierazpenak SALATZEN DITUGU, emakumeak herritar tutelatu gisa eta norbere bizitzaz erabakitzeko ahalmenik gabe kokatzen direlako.
- Krisian baitan, zerbitzu publikoen murrizketek -bereziki zaintzari dagozkionak-, biolentzia arriskua handitu dezaketen bulnerabilitate egoerak sortzen dituztela SALATZEN DUGU. Obedientzia eta sumisioan oinarritutako harremanetan hain zuzen ere.

Hori guztiagatik, Udal honek, ekitatea eta emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna oinarri izango dituen beste eredu sozial baten eraikuntzan aurrera egiteko konpromisoa hartzen du. Emakumeenganako biolentzia bukatzeko bide bakarra izanik eta bide honetan mugimendu feministari entzun eta berarekin parte hartuz, norabide honetan egindako ibilbideagatik eta helburu hori lortzeko duen lidergo historikoagatik.

Horren guztiaren jakitun, Udal honek

- KONPROMISOA HARTZEN DU indarkeria aurre egiteko politika integralari dagokionez, mota desberdinetako neurriak hartu beharko ditugu kontutan, besteak beste heziketan oinarritutako prebentzio neurriak, eraso baten ondorengo neurri asistentzialak edota erantzun soziala artikulatzeari begirakoak.
- KONPROMISOA HARTZEN DU, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, osoa eta koordinatua garatzeko, hitzetik ekintzetara pasatuz. Horretarako, eutsi egingo diegu aurrekontuei biolentziaren biktima diren emakumeentzako arreta programa guztietan.
- KONPROMISOA HARTZEN DU, autodefentsa feministaren beharra transmititu eta emakumeak animatu lanketa berezia egin dezaten eta bitartekoak jarri ditzaten.
- KONPROMISOA HARTZEN DU, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako sentsibilizazio eta prebentzio lanketarako Beldur Barik programaren edukia partekatzea.
- KONPROMISOA HARTZEN DU, gazteen arteko erlazioen lanketa errespetuan, askatasunean, autonomian eta berdintasunean egiten.

MOZIOA AHO BATEZ ONARTU DA.

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPO, ETA GAIA PRESAZKOTZAT JO ONDOREN, PUNTU HAU SARTZEA ERABAKI DA AHO BATEZ.

**PALESTINAREN EGOERARI BURUZKO MOZIOA, HERNANIKO KOOPERAZIO TALDEAK AURKEZTUA.** - Hernaniko Kooperazio taldeak "Gerraren aurkako Gipuzkoako plataforma"-ren mozioa bere egiten du eta Udaltzatzen onartu dadin bideratzen du.

Gerraren aurkako Gipuzkoako plataforma.

Israelgo Armadak Gazan burutu duen eraso militarren hazkundeak sortu digun astindua adierazi nahi dugu.

2012ko azaroaren 8an Israelgo Okupazio Indarrek 13 urteko Ahmad abu Daqqa erahil zuten, etxe ondoan futbolearen ari zela. Gazak jasaten duen indarkeria aste betez handitu ondoren, su-etena adostu zen, baina Israelek azaroaren 14an hautsi zuen "Defentsa Zutabea" deitu duen erasoaldia bide.

Azken erasoaldi israeldarrek 162 pertsona erahil zituzte eta 1.300 pertsona baino gehiago zauritu. Israelek gainera ur, argi-indar eta erregai ornidura eten izan du, eta horrekin Israelek bidegabeki Gaza setiatu zuenetik bertako biztanleriak pairatzen duen biziraupen krisi latza areagotu besterik ez du egin.

Palestinar Lurraldeak lege kanpo okupaturik dirautelarik eta euren Giza Eskubideak behin eta berriz urratuak direlarik, Israelek nazioarteko legediari muzin egiten diola aintza hartuta....,

Hernaniko Udaltzari honako MOZIOA onartzeko proposamena luzatzen diogu:

- 1.- Hernaniko Udalak bere babes, elkartasuna eta begirunea adierazten dio palestinar herriari.
- 2.- Hernaniko Udalak nazioarteko komunitateari arren eskatzen dio eskura dituen bitarteko guztiak erabil ditzan Israeli bere lege betebeharrak betearazteko, Zuzenbide Estatu bermatzeko eta palestinar herriaren bakea eta segurtasuna bermatzeko. Ildo honetan, Israelek palestinar herriaren gain gauzatzen duen apartheid politika bertan behera geratu artean gaztelaraz BDS izenarekin ezagutzen den (boikot, desinbertsio eta isun) kanpainarekin bat egiteko.
- 3.- Hernaniko Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Kanpo Arazoetako Ministerioa palestinar herriarekiko elkartasun adierazpen hau helarazi diezaion Israeleko erakundeei; hartara, edozein irtenbide lortzeko dagozkion konpromezuak betetzeko eta Giza Eskubideak ez urratzeko deialdi hau jaso dezala.
- 4.- Hernaniko Udalak, nazioarteko komunitatearen parte hartzea izango duen palestinar-israeldar gatazkaren konponbidearen aldeko jarrera berresten du, Nazio Batuen 194. ebazpena gauzatzeko alde biei ahaleginak betetzeko eskatzen dielarik.

(Oharra: Gerraren Aurkako Plataformak bere onspena eman du adierazpena puntuz puntu bozkatzeari inork hala eskatuko balu)

MOZIOA AHO BATEZ ONARTU DA.

**9.- ESKAERAK ETA GALDERAK.** - Amonarraiz jaunak (EAJ/PNV) honako hau esan du:



\* Alkateak 2009ko apirilaren 20an izenpetutako dekretuzar baten bidez hainbat alditan salatu izan baitugu, langile batzuren lan baldintzak aldatu zituen, osoko bilkuraren eskubideak usurpatuz. Jakin izan dugu ilegalitate hori alkatearen dekretu baten bidez konpondu dela, eta horregatik zorionak eman nahi dizkiogu, baina nahiago genukeen Udalbatzak auzi hau lehenago konpondu izan bazuen, bere ekimenez, txosten juridikoen zain egon gabe.

2012ko urriaren 5eko dekretuak irakurri ditugu, eta pentsatu nahi dugu 2010eko apirilaren 29ko dekretuzarren sukarrak eraginda gertatu ziren langile guztiei itzuliko zaizkiela beren eskubideak, bai auzitegietan defendatzeko hautua egin zutenei bai eta, dena delako arrazoiak tarteko, hala egin ez zutenei ere. Garai bateko Kirol Patronatuko langileei buruz ari gara.

Jakin nahi dugu ea hori hala izango den ala bakarrik auzitegietara jo zuten langileentzako balioko duen.

\* Ongintzako lehendakaria ere zoriondu nahi dugu, izan ere duela urte asko eta oraindik ere beren lan-mailarekin bat ez datozen hainbat lan egiten dituzten administrazioko bi langileri 2004an onartu eta 2009ko dekretuzarraren bidez kendutako hobekuntzak berriz ezarri dizkie.

Jasota utzi nahi dugu langile hauek zeregin horiek egiten jarraitu dutela, bai hobekuntza jasotzen zutenean bai eta jasotzen ez zutenean ere.

\* Dagoeneko igaro dira sei hilabete, hau da, alkateak esan zuenez, Diputazioak bere eskumenekoa duen Zaharren Egoitzaren kudeaketaren eskualdaketa aztertzeke behar zuen denbora.

Jakin nahi dugu ea Diputazioak zerbait egin duen ala ez, edo kontu hau noiz konponduko den galdetzeko asmorik ba ote dagoen.

- Alkate jaunak hau esan du:

Aurreko legegintzaldian hainbat langileren lan baldintzak aldatzeari buruz gertatutakoari buruz, hainbat alderdi aztertu ditugu, ez denak. Errekurtsoak aurkeztu eta auzietara jo zuten langileei zegokiena ebatzi dugu. Gero Ongintzako kasuak aztertu eta ebatzi ditugu, eta Kiroldegikoak oraindik ez ditugu aztertu; aztertuko ditugu eta ikusiko dugu zein erabaki hartzen dugun.

\* Egia da legegintzaldiaren hasieran Zaharren Egoitzaren eskualdaketa gauzatzeko harremanetan hasi ginela Diputazioarekin, eta egia da 6 hilabeteko epea eman zigutela. Diputazioarekin harremanetan jarraitzen dugu, eta ez dago proposamen zehatzik ez Hernanirentzat ez eta Gipuzkoako gainerako herrientzat ere. Gaia eskuartean daukagu.

Amonarraiz jaunak dio noiz galde dezakeen berriz gai honi buruz eta Mendinueta andreak (Bildu) erantzun dio ezer jakin bezain laster udalbatzako kideei jakinaraziko dietela.

Amonarraiz jaunak berriz ere esan du Diputazioarena dela kontu honen eskumena eta profesionalak behar direla hernaniarrengan inbertitzeko diru gehiago izan ahal izateko.

Alkateak esan dio guztiz ados dagoela.

Beste aztergairik ez dagoenez bilera 19:15 orduetan bukatu da, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.